

“

BENETAN HORREK EGIN NAU KOMIKO: EMANALDIA GAIZKI DOANEAN ERE GOZATZEN JAKITEAK

”

Iruñea ez da oso handia, baina Beñat Iturbek elkarrizketarako lekua hautatu duen arte ez dut jakin institutu berean ikasi genuela. Madril eta Iruñea artean bizi da, han hemen baino gehiago, oraingoz. Etxera egin duen bisita bat probestu dut harekin elkartzeko eta komediaz aritu gara, batik bat. Euskal Herrian espazioa hartzen ari den diziplina horren inguruan ibiltzen da, besteak beste, Beñat.

 AMETS ARANGUREN ARRIETA  LANDER GONZALEZ / ARGIA CC BY-SA

Hemen hasi omen zen dena. Non gaude?

Iruñeko Iturrama institutu ondoko Eroski parean dagoen bankuan. Hemen pasatzen genituen asteburu gehienak nerabezaroan. Agian ez da hainbeste hemen hasi zela dena, baizik eta hemen ibiltzen ginen garaian hasi nintzela ni Interneten komediari denbora eta arreta eskaintzen, obsesio puntu hori garatzen.

Banku hau zen gauza batzuk probatzen hasteko tokia. Jendea iri esan gabe “hau probatzen ari naiz” edo nik ere ongi jakin gabe, baina txistek egiten hasteko lekua izan zen. DBHko bigarren mailan-edo egongo ginen.

Nor zinen klasean?

Klasearen arabera, baina grazioso ez. Agian egin nuen saiakeraren bat, baina ez. Frikia nintzen agian. Telesailen eta komikien frikia, komediarena berandua-go heldu zen. Klasean marrazten aritzen nintzen: koadernoetan, agendan...

Eta lagunartean?

Ere bai. Lagun guztietatik frikiena. Graziosoena hemen ere ez... Egunerokoan ez naiz grazioso izaten saiatzen. Jendeak hori bilatzeak nekatzen nau. Edo komikoak elkartzeko direnean eta joera hasten denean izaten ea nor den barre-garriena... gaitzki pasatzen dut. Gainera,

hori egiten du, batez ere, horren grazioso ez den jendeak. Onak direnek badute beste lasaitasun bat. Beti miretsi izan ditudanak izan dira modu naturalean graziosoak ematen zutenak. Gero kon-turatzen zara askoren kasuan horren atzean dagoen lanaz.

Nik orain sentitzen dut ari naizela jasotzen banku honetan hartutako erabakien fruituak. Orain ikusten dut hori dela benetan egin nahi nuen.

Segitzen duzu jendearendako frikia izaten?

Bai. Komediaren munduan bi pertsona mota dago: alde batetik, beste erreferen-



Beñat Iturbe

IRUÑEA, 1993



Iruñeko Iturrama auzoan jaiotakoa da. Zinema ikasketak egin zituen Katalunian eta han hasi zen komediaren munduan aktiboki sartzen. Bartzelonako La Llama liburu-dendan izan zen bere bigarren emanaldia komiko gisa, lehenengo esperientzia negatiboak zortzi urtez oholtzatik kanpo eduki ondotik. Komediak ez dio, oraingoan, jaten ematen, baina argi du jaten ematen dionak ahalbidetu behar diola komediarako tartea. Madrilen du une honetan egunerokoa.

te batzuegandik asko edan dugunok eta, bestetik, betidanik oso graziosoa zela esan dioten jende hori.

Komiko asko topatu ditut ez dituztenak beste komiko batzuk ezagutzen, ez dutenak bereziki horiek entzuteko interesik eta ez dut ulertzen. Musikari bati ez diozu friki esaten beste musikari batzuk entzuteagatik, zergatik komediari lotuta bai?

Eta amorrua ematen dizute erreferentzia horiez paso egiten dutenek?

Ez. Ikusten dudana da oraindik Euskal Herrian gutxi garenez, ez dagoela argazki orokor bat argi ikusteko *stand up*-ak zenbat aukera ematen dituen benetan, oso ideia zehatza dagoela oraindik komikoaren inguruan.

Ematen du bi aukera besterik ez dagoela: edo aktore gisa umorea egitea edo Louis CK estatubatuarraren ereduari segitzea. Lehenengo eredu gehiago litzateke ahotsak jartzen dituen, pertsonaia desberdinak antzezten dituen edo pailazoarena egin dezakeena; eta bigarrenarena zutik hitz egiten dizuna, testuari berari garrantzia handiagoa ematen diona eta bestelako antzezpen gehigarri handirik ez duena.

Eta beste modu asko dago. Horregatik aipatzen nizun erreferenteak izateak ere hori ematen dizula, haiei esker ikusten duzulako zenbat gauza egin daitezkeen eta zenbat bide desberdin dagoen ez gaitezen denak berdinak izan.

Komediaren olatu hau moda besterik ez da ala geratzeko heldu da?

Zalantza daukat. Jende asko moda gisa ikusten ari dela badakit, jaso izan ditudan proposamen batzuetan argi ikusi dut: “Bueno, orain gorakada edukitzen ari zaretenez, hasi nahi dugu antolatzen. Etorriko zara?”

Horrela saltzen didatenean orokorrean ezetz esaten diet. Baina badakidalako ez dela ongi antolatuta egongo, ez dakitela zer egiten dudan eta ez duela funtzionatuko. Haiek haserretuko dira, publikoa ere bai eta ni ere bai. Eta horrek ez du ezertarako balio.

Zein leku izan du orain arte *stand up*-ak hemen?

Lehen bazen *stand up*-a, baina bazen dagoeneko ezaguna zen jendeak egi-

na, antzokietan-eta. *Stand up* kultura Estatu Batuetatik dator eta gehiago izan da tabernatan, toki txikitik, 20-30 pertsonaren aurrean txiste berbera askotan egitea. Gehiago probaleku gisa ulertzea, zortzi minutuko parte-hartzeak eginez hasita, adibidez. Hemen jendea hasi da zuzenean ordubeteko emanaldiak egiten.

Antzeztuagoa zen orain arte zegoena. 2023an hasi ziren Hiru Damatxo ekoiztetxeak probalekuak antolatzen, hori izan zen eszena sortzeko lehen saiakera. Uste nuen jende gehiago animatuko zela, baina denbora behar da oraindik.

Jende gehiago animatuko zela oholtzara.

Bai. Iruñeko jenderik ez da agertu oraindik, baina agian hori nire egin-kizuna izan daiteke, datorren publikoari argi uztea hau edonork egin dezakeela.

Katalunian hasi zinen komediaren munduan aktiboki, ezta?

Bai, zinema ikasi nuen Terrassan [Bartzelona]. Han izan nuen lehenengo esperientzia ikasleek antolatutako festa batean aurkezle gisa eta, faktore asko tarteko, ez zen batere ongi atera. Oholtzatik jaitsi nintzelarik, urtebete lehenago aurkezle aritu zenak esan zidan: “Egin ezazu beste zerbaitez zure bizitzarekin”.

2011 zen hori eta 2019ra arte ez nintzen berriz oholtzara igo. Eta hobe. Hor hasi izan banintz ez nengoke orain hemen. Oso ziur egon behar duzu gauza batzuez. Lehen hamar emanaldietatik lau gaizki aterako dira. Eta ikasi behar da gaizki ateratzen denean ere etxera lasai joaten eta ongi lo egiten. Benetan horrek egin nau komiko: emanaldia gaizki doanean ere gozatzen jakiteak.

2019an igo nintzen berriz oholtzara, Bartzelonako La Llama liburu-dendan antolatu zuten *open* batean, probaleku batean. Ez zitzaidan ongi atera, baina oso ongi tratatu ninduten eta horregatik nago, hein batean, hemen.

Barre egin izan diozu orain barrerik eginen ez zeniokeen zerbaiti?

Esango nuke ezetz. Orain hasi naiz gai batzuetan gehiago sartzen, badakidalako atera naitekeela hortik. Eta argi dut komiko probokatzailea baldin ba-



zara probokatzen ari zarela, erantzun bat probokatzen. Etiketa hori nahi baduzu, prest egon behar duzu jendea kexaka hurbiltzen bazaizu. Baina zer diozu, ea lotsa ematen didaten egindako gauza batzuek?

Edo ea pentsatu duzun pribilegiotik ari zinela trufaka.

Komedia egiten daramadan denboran uste dut jendartea –eta hortaz ni– ez dela hainbeste aldatu susto hori hartzeko moduan. Horregatik ere pozten naiz 2011n hasi ez izanaz. X sareko txioak bai, batzuk bai ezabatu nahi ditudala.

Autozentsurarik bada egiten duzunean?

Bai, baina uste dudalako hobe dela horrela. Barrerik eragiten ez duen txistea kentzen dudan bezala kentzen dut egokia iruditzen ez zaidana, beti dago zer kendu. Hartzen dudana gaia hartzen dudala, saiatzeko naiz nire burua blin datzen. Publikoak gaizki hartuko duen txiste bat badut esku artean, jakin nahi dut txistea defendatzeko gai naizela. Amorrua ematen dit ikusteak jende as-

kok gerora kritikatu zaizkion txiste batzuk egiten dituela eta haien erantzuna dela: “Ba!, txiste bat da”. Probokatzaila bazara prest egon behar duzu horrelakoei erantzuteko.

Bada zerbait zure ustez ezin zaiona barrerik egin?

Publiko gisa bai. Nik ez diet gauza batzuei barrerik egingo, baina komikoaren esku egon behar du horrek, zer esan eta zer ez.

Emanaldiak moldatzen dituzu publikoaren arabera?

Bai, beti neurtzen da pixka bat. Lehen ez nuen egiten, baina orain bai. Ez dut iritziz aldatzen, baina gauzak modu eta ordena diferenteetan esateak dena aldatzen du. Jendea topera dagoenean ni lasai ateratzen naiz eta jendea apalago badago, agian ez naiz 20 segundoko isil-lunea duen txiste batekin hasiko. Publikoaren irakurketa da gakoa, zailena da, baina garrantzitsua.



Ni beti hasten naiz hortik, argi utziz ergela ni naizela. Zu irakurri ahal izateko tresnak eman behar dizkiozu publikoari

Zein da zure publiko ideala?

Guztiari barre egiten diona ez, konfiantza galarazten didalako horrek. Nik egiten dudanarekin zera da onena: hasiera batean publikoa erdi-deseroso egotea, gero gutxika batzuk solte barrezka has-tea eta gero barrea zabal-tzen hasia.

Gehien kostatu zitzaidana izan zen ulertzea nola aurkeztu nire burua jendeak eros zezan egin behar nuena. Hasieran gehiago nintzen animatzaile kulturala, isilunearen bel-dur nintzen eta ez genuen gozatzen. Naturaltasuna erakustea da zailena, egoera ez delako berez naturala. Nik bizpahiru urte behar izan ditut hori lortzeko.

Zein publiko zara zu?

Zorrotza, baina ona. Analisia ez dut momentuan egiten, baina publiko presentea izaten saiatzeko naiz. Hemen ez hainbeste, baina Madrilan, adibidez, open-etan komiko batzuek ez dute gaitz nontzekoena entzuten eta hori ez zait

gustatzen. Edo aurkezleak ere batzuetan aurkezlearena egin eta komikoak aritu artean erretzera joaten dira edo ez dute kasurik egiten.

Amore eman duzu inoiz emanaldia bukatu aurretik?

Saioak irauten duena baino lehen ez dut inoiz bukatu horregatik. Amore eman izan dut, baina amore emanda segitu dut oholtza gainekoarekin. Denboraren kontrolean beti izan naiz ona. Izan ere, inoiz ilusio gehien egin didan piropoa horri lotutakoa izan da.

Zein punturaino da egia besteaz barre egiteko jakin behar dela norbere buruaz barre egiten?

Ehuneko ehunean. Salbu eta hasiera-hasieratik argi uzten baduzu ergela zarela eta hori dela eraiki duzun pertsonaia. Jendeak baldin badaki hortik abiatuko zarela, egin daiteke. Ni beti hasten naiz hortik, argi utziz ergela ni naizela. Zu irakurri ahal izateko tresnak eman

behar dizkiozu publikoari, jakin dezaten nahita ari zarela.

Zergatik sufritzen du publikoak hainbeste *stand up* emanaldi bat ongi ez doala sumatzean?

Ez dagoelako laugarren paretarik. Musika emanaldi batean, adibidez, oholtza gainekoa eta hortik kanpokoak independenteagoak izan daitezke, *stand up*-ean beti dago harremana.

Aktoreek egiten duten *stand up*-a ez zait hainbeste gustatzen agian pareta hori ikusten dudalako. Eszenatokia ari dira betetzen, baina askotan ez dira haien eta publikoaren artean dagoen harreman hori sostengatzen ari. Uste dut zuzeneko komediak eman dezakeena dela gau bakoitza desberdina izatea, eta hori ere publikoarekin dagoen harremanak ematen du. Horrekin ez dut esan nahi publikoarekin hitz egin behar denik edo publikoak ematen duenarekin komedia egin behar denik, baina harreman hori oso garrantzitsua da.

Zure emanaldi baten zenbat da hitzik gabeko komunikazioa?

Asko. Hor ere ikusten dut lanketa bat egin behar izan dudala. Uste dut jende bati mamia gustatu ez arren, komunikatzeko moduak bakarrik salba dezakeela emanaldia. %40 edo %50 izan daiteke hitzetatik haragoko komunikazioa.

Orain ari naiz Darwinen liburu bat irakurtzen, animalia zein gizakien aurpegi adierazpenaren inguruan. Ez dut gehiegi pentsatu, baina askotan, komedian, errematea eman aurretik egiten duzun keinu horretan hasten da barrea. Eta horretaz bai jakin nahiko nukeela gehiago. Agian

hasi behar dut ispiluaren aurrean gauza batzuk probatzen.

Uste duzu oholzaratzeko momentuan baduzula gorputzaren kontzientzia?

Bai. Eta janzkera ere kontutan hartzen dut. Normalean horrela janzten naiz [bere jertsea seinalatzen du], baina ikusten dut jendeak hobe erosten didala pertsonaia hasieratik jertsetxo batekin eta alkandora batekin joaten banaiz bestela baino. *Ergela* izatearen honek badu bere zera [barreak].

Euskaraz eta gaztelaniaz aritzen zara batez ere. Zein alde somatzen duzu?

Mamiari dagokionez batere ez. Badira bloke batzuk euskaraz egiten ditudanak, gaztelaniaz zentzurik ez dutenak erreferentziengatik, baina gaztelaniaz egiten dudana guztia euskaraz egin dezaket. Afera da itzuli ordez berriz hutsetik idatzi ditudala gauzak beti, gramatikari dagokionez desberdin funtzionatzen dutelako hizkuntza biek.

Gero erraztasun handiagoa daukat gaztelaniaz, denbora gehiago daramadalako gaztelaniaz egiten eta kanpoan bizitzen. Hasieran ikusten nuen ez neukala ohituratik saioa euskaraz egiteko eta gaizki pasatzen nuen.

Eta agian lagunarteko hizkera ez duzulako hain barneratua euskaraz?

Beno, hizkuntza jasoak ere aukera asko ematen ditu eta nire pertsonaiari ongi datorkio hori. Konturatu naiz ez dela zertan hizkera arrunta izan behar berregarria izateko. Laguntzen du, baina kontrakoak ere funtziona dezake. Anttonek [Telleria] ere oso zuzen hitz egiten du eta horrek balio dio.

Komediak beti eskatzen du esperimentazio puntu bat eta apustu bat, eta benetan zerbait egin nahi bada, horretarako prest egon behar da. ●





2025 **MAIATZAREN LEHENA**

GUTXIENENKO SOLDATA

HEMEN ERABAKI

